



Herria zuri bihurtu du elurrak

Elurtearen ondorioz bakartuta geratu zen Lasarte-Oria asteazken goizean / 10-11

TXINTXARRI

Lanuztea egiteko mila arrazo

Martxoaren 8an emakumeak lanuztera eta mobilizaizoetan parte hartzera deitu ditu Mugimendu Feministak / 6-8

'Hitzartu'-k beste urrats bat egin du, eta informazio faseari ekingo dio egunotan / 3

Dispertsioaren biktimak aitortzeko eskatu du EH Bilduk, Balerdiren omenaldian / 5

Lasarte-Oriako alkate eta zinegotziak omendu ditu PSE-EEK, Orian egininiko ekitaldi batean / 4

Asteburu pozgarria Ostadar SKT Saskibaloientzat: talde guztiek irabazi dute asteburuan / 12



7.000 sinadura eta 5.000 helegite, autobus zerbitzuaren murrizketen aurka / 2

Autobus zerbitzuaren defentsan, aldundian

Gipuzkoako Aldundiaren aurreproiektuaren aurka eskuorriak banatu dituzte Buruntzaldeko autobus gidariak eta erabiltzaileak. Aldundiraino martxa egin dute, eta zerbitzu publikoaren aldeko 7.000 sinadura eta 5.000 helegite aurkeztu dituzte

Txintxarri

"Murrizketarik ez". Ozen oihukatu dute autobus gidariak eta haiei laguntzera gerturatu direnek, Garraio eta Lurralde Antolamendu bulego aurrean, Donostian. Aldundiak esku artean duen proiektua geldiarazteko helburuz, Donostiako Antigua auzoan elkartu ziren protesta egitera, asteartean. Pankartak eta afixak eskuan, manifestua irakurri dute. "Diputazioaren jarduteko modu honen atzean eredu neoliberal basatia dago, zerbitzu publikoak suntsitzeko eta ekonomia pribatuari ateak irekitzeko". Oinez joan dira gero Gipuzkoako plazara, eta aldundian erregistratu dituzte proiektuaren aurkako 7.000 sinadura eta 5.000 helegite.

Aldundiak iaz aurkeztu zuen aurreproiektua, Buruntzaldeko autobus zerbitzuak "berregituratzeko". Marisol Garmendia Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa diputatuaren arabera, proiektu horrek autobus lineak "hobeto antolatuko" ditu, jende gehien ibiltzen den orduetan autobus gehiago jartzeko.

Haatik, langileek eta erabiltzaile askok salatu dutenez, zerbitzu publikoaren "murrizketa itzela" ekarriko du. Eta Lasarte-Oriari



Langileak eta erabiltzaileak protesta egiten, asteartean. TXINTXARRI

ere zuzenean eragingo dio. TSSTko langile batzordeak goitik behera aztertu du proiektua. Ospitaleetako linea %46 murriztuko dute; Lasarte-Oriatik Donostiara, %25; Amarara, %25; Andoainera, %25; Hernanira, %46; eta Tolosara, %50.

Donostiako kaleetatik barrena ibili dira protesta egiten, eta eskuorriak banatu dizkiete herritarrei. Hainbat datu ere eman dituzte. Izan ere, Gipuzkoa da auto gehien erabiltzen den lurralde historikoa. Horrez gainera, 2016tik kontzesioaren eremuan 92.652 pertsona gehiago bizi dira, eta 130.864 desplazamendu gehiago izan ziren urte horretan.

Horren guztiaren aurrean, langileek irmo esan dute: "Interes sozialak daude interes ekonomikoak gainetik".

Gainera, TSSTko langile batzordeak kalkulatu duenez, aurreproiektua aurrera ateraz gero 30 bat langile kaleratuko dituzte. "TSST da enpresa handiena, pentsatzekoa da gehienak enpresa horretakoak izango direla", esan du Ainhoa Elgezabalek, langile batzordeko kideak. "Herritarrek behin eta berriz esan dute ez daudela ados, baina aldundiak murrizketekin jarraitu nahi du". 7.000 sinadura eta 5.000 helegiterekin indarra egingo du.

Jaietako omenduen izena eta ekintzak proposatzeko aukera

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak San Pedro jai parte hartzaileak antolatuta nahian aurtan ere *Jaietan Blai!* prozesua aurrera eramango du.

Honen bitartez, herritarrek sanpedroetan egin daitezkeen ekintza berriak edo musika taldeen izenak proposatu ahaliko dituzte. Elkarrekin edo lagun kuadrillarekin zerbitzu antolatuta nahi izanez gero ere, proposamena egin daiteke.

Bestalde, San Pedro Jaietako omendua ere proposatu ahal dute herritarrek. Udalak jakitera eman duenez, Lasarte-Oriaren alde lan egin duen pertsona edo kolektiboa proposatu daiteke.

Herritar bakoitzak proposamen bat egin ahal du, eta hautagaitza hori aintzat hartzeko arrazoiak azaldu behar ditu.

Bi modu daude udalari ideiak helarazteko: etxeetan banatu den eskuorria bete eta udal eraikinetako parte hartze postontzietan sartu edo udalaren www.lasarte-oria.eus web orriaren egitea.

Ekintzetako proposamenak martxoaren 20a bitartean jasoko dira; omenduen izenak, berriz, apirilaren 20a baino lehen helarazi behar dira.

Lasarte-Oriako Festak sailak proposamenak egitera gonbidatu ditu herritarrek.



TXINTXARRI

Sahararen aldeko aldarrikapena

Mendebaldeko Sahararen aldeko elkarretaratzea egin dute Lasarte-Orian, herrialde horren egunean. Hainbat ekintza egin dituzte azken asteotan, zapalduetako herri horren inguruan informazioa emateko, Euskal Herriko Lagunak Saharakoekin Bat elkarrekin bultzatuta. Igandean amaituko dira ekitaldiak: bazkari sahararra egingo dute Kale Nagusiko Furia jatetxean.

Urte zirrargarria aurretik

Erketz EDT dantza taldearen sokak ez du etenik. 50 urte daramatza dantza, euskal kultura eta Lasarte-Oria lotzen, eta inoiz baino sendoago dago. Urteurren berezia ospatze aldera, hainbat ekitaldi prestatu ditu; 2018an zehar egingo ditu denak.

Larunbatean, ekitaldien aurkezpena baino lehen, flashmob bat grabatu zuten, giro ederrean, Okendo plazan. Gaur egungo Erketzeko kideek, beterranoek eta hainbat lagunek hartu dute parte.

Ondoren hasi da 50. urteurrenoko ekintza bereziak iragartzeko agerraldia. Erketz EDTko kideez gain, udal korporazioko hainbat kide egon dira present.

Martxoaren 17an hainbat euskal dantza jantzirekin, desfilea egingo dute, Manuel Lekuona kultur etxean. Apirilaren 22rako, berriz, erromeria erraldoi bat ari dira prestatzen. Ekainaren 16an, San Pedro jaien aurreko emanaldi berezia egingo dute, Okendo plazan. Aurtengo emanaldia

"oso berezia" eta "ikusgarria" izango dela iragarri du Erketzek; herriko hainbat elkarte ere hartuko dute parte.

Urte berezi hau biribiltzeko, urriko hirugarren astebururako ere ari dira ekintzak prestatzen. Alde batetik, desfile-emanaldi bat egingo dute, bost hamarkadotan Erketzeko kideak izan direnekin. Bestalde, bazkari bat ere egingo dute; kide direnak eta urteotan izan direnak daude gonbidatuta.

Hau guztiaz gain, liburu bat argitaratuko du Erketz EDTk: 50 urteotan bizipen eta anekdota ugari bildu dituzte eta CD bat grabatu dute taldeko musikariek.



TXINTXARRI



GuraSOSeko Joseba Balaustegi, CC00ko Kerman Galarza, Jose Mari Izeta eta LABeko Joxean Orkiola. TXINTXARRI

Eztabaida faseari ekin dio 'Hitzartu' prozesuak

Datozen asteetan osasuna, demokrazia, ekonomia eta hondakinen kudeaketari buruzko saiok egingo dituzte. Apirilean hasiko da parte hartze prozesua; Hiritarren Epaimahaiak eratu dituzte, gatazkari kontsentsuzko irtenbide bat bilatzeko

Adrian Garcia

Pixkanaka aurrera doa *Hitzartu*, hurrengo urteetarako hondakinen kudeaketaren inguruan eztabaidatzeko eta erabakitzeke parte hartze prozesua. Gutxieneko finantzazioa lortu du, 10.000 euroko langa gaindituta, eta informazio eta eztabaida publikoaren faseari ekingo dio egunotan. Gaur bertan, ostiralean, egingo dute lehen saioa; Gipuzkoako Medikuen Elkargoko aretoan CSIC Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko bi zientzialarik txosten bat aurkeztuko dute, Zubietako erraustegiko baimenaren gabeziak azaleratzeko. Ondoren, erraustegia eta osasunari buruzko eztabaida egingo dute.

Lehen fasea igaro du *Hitzartu*; GuraSOS elkarteak abiatu du prozesua, erraustegiaren aurkako borroka beste eremu batera eramateko. Aldundiak bere garaian hitzemandako parte hartze prozesua egin nahi dute, hondakinen gatazkari konponbidea emateko eta kontsentsuzko erabaki bat hartzeko. Izan ere, gobernatzeko

eran eta demokrazian haurnastuko dute, garrantzitsuak diren erabakiak gizarteak berak hartu ditzen.

Lehenengo *crowdfunding* kanpainaren bidez 17.000 euro bildu dituzte, eta martxan jarri dute proiektua. Baina ez da nahikoa. Parte hartze prozesua ahalik eta berme gehienekin egiteko, beharrezkoa dute gutxienez 80.000 euro biltzea. Horretarako, *Hitzartu* kideak sortuko dituzte; bost euroren truke, *Hitzartu*-ren txartel bat eskuratu ahal izango da. Horrez gain, www.hitzartu.eus webgunean ere egin daitezke ekarpenak.

Informatu eztabaidatu aurretik

Apirila bitartean jarraituko dute informazio fasearekin. Osasuna, demokrazia, ekonomia eta hondakinen beste kudeaketa ereduak izango dituzte hizpide hurrengo asteetan.

Martxoaren 9an, ostiralean, Donostiako EHUko campuseko Carlos Santamaria zentroan, *Nola sendotu gure demokrazia, nola sendatu gizarte solasaldia*

egingo dute, Euskal Herriko hainbat unibertsitateko lau aditurekin.

Apirilean, eztabaida

Apirilean hasiko da parte hartze prozesua. Ikusita hondakinen kudeaketaren gaiak eztabaida eta liskar ugari sortu dituela Gipuzkoan, parte hartzeko bi teknika erabiliko dituzte.

Batetik, Hiritarren Epaimahaiak sortuko dituzte. CSICko Ernesto Ganuza berak bideokonferentzia bidez azaldu du zertan datzan teknika hori. "Irizpide demoskopikoekin, zozketaren bitartez herritarrak hautatzen dituzte tailerretan parte hartzeko". Tailer horietan, kontrako iritzia duten bi aditu izango dituzte, eta hondakinen plana egiteko irizpideak finkatuko dituzte. Asmoa da 30 lagunetako hiru tailer osatzea, Gipuzkoako hiru eskualdeetan. "Baina lortzen dugun finantzazioaren arabera izango da hori ere", ohartarazi du Jose Mari Izetak, GuraSOSeko kideak. Bestetik, Gune irekiak egingo dituzte, herriz herri hainbat eragilek parte hartzeko.

NEURE KABUZ



GORKA ALVAREZ

Denbora

Denbora. Lerro hauek idazteko bilatzen nuena. Egunerokotasunean estu hartzen nauena. Momentu zehatz honetan mugatzen nauena. Bizitza bera. Unea, tartea, momentua.

Zer da denbora? Gaur egungo bizimodua antolatuta daukagun moduan denboraren beharraz aritzen gara askotan solasean. Nire kasuan, denboraren zurrumbilo horretan, egunak, hilabeteak eta urteak aurrera nola egiten duten ikusten ari naiz. Egunerokoan muga izaten da eta aukera edo abantaila bihurtzea izango litzateke helburua. Matematikako ariketa baten aurrean nengoela, hau ere denboraren inguruko, otu zitzaidan gai honen inguruko hausnarketa egitea. Izan ere, segundoez, minutuek, orduak eta egunek zehaztutako egutegi hertsia batean harrapatuta bizi gara.

Esnatzeko ordua, lanera sartzeko unea, bazkal ordua, lagunekin zita egiteko tartea, kirolean ere partidaren denbora mugatua. Lan bat aurkezteko epea iristen denean bezalatsu edo aurkezpen baten data iristen denean edota urteko data seinlatu hori iristen denean ere.

Ezkontzeko momentua, haurra izatekoa, armairutik irteteko garaia, heldu izateko aroa. Bidaiazteko ordua, gozatzekoa, idaztekoa, konpartitzekoa, pertsonak agurtzeko egunak, jende berria ezagutzeko momentuak. Uneak, garaiak momentuak.

Denbora, existentzia mugatzen duen hitza. Noraino helduko garen zehazten duena. Denbora probestea, unea bizitzea, gozatzea, askotan entzuten ditugunak dira. Askotan askoren ahotan eta hala ere askori bizitzak ihes egiten die denboraren olatuetan igerian ari direlarik.

Hartu denbora bat hausnarketarako. Denbora bakoitzarena da eta guztiona aldi berean. Unibertsala eta pertsonala. Zurea eta nirea. Idazki xume hau izan dadila zure eta nire denbora txoko honetan konpartitzeko bide, eta bide batez, gogoeta baten hastapen.



Donostian eginiko manifestazioaren irudia. NOAUA!

Erraustegiaren aurka, Donostian

"Zubietako erraustegiaren egitasmoa geratu egin behar da". Hori izan zen larunbat arratsaldeko manifestazio jendetsuko aldarrikapen entzunenetako bat. Hainbat herritako biztanle ugari elkartu ziren Donostian, hondakinak kudeatzeko sistema hori arbuizatzeko, eta "osasunaren alde" egiteko. Lasarteoriatar askok egin zuten bat Aire Garbia plataformak Manuel Lekuona kultur etxean egindako deialdiarekin. Horrez gain, Landaberri ikastolako irakasle talde batek parte hartu zuen manifestazioan; hitzaldi bat eskaini zuen bukaeran. Besteak beste, elkartasuna adierazi zieten Ainhoa Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkini. 2011-2015 legegintzaldian Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko lehendakari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatu izan ziren, hurrenez hurren, eta erraustegia gerarazteagatik epaitu egingo dituzte.



Omendu zituzten alkateek eta zinegotziek talde argazkia atera zuten, oroigarria jaso ostean. T.VALLÉS

Elespe gogoan, PSEren omenaldi egunean

PSE-EEK Lasarte-Oriako udalerrria sortu zenetik 2011 urtera arteko alkate eta zinegotziak omendu ditu egindako lanarengatik. Aipamen berezia egin diote Froilan Elesperi. Oriako El Jardín jatetxean ospatu dute jardunaldi berezia

Txintxarri

Lasarte-Oriak 1986ko otsailaren 15ean eduki zuen aurreneko udal propio bat. Pasa dira 32 urte, eta hainbat alderditako zinegotzi eta alkatek egin dute lan bertan. Tartean, PSE-EE alderdikoak. Larunbatean elkartu ziren Oriako El Jardín jatetxean, eta omenaldi egun berezia ospatu zuten. Herrian egon diren bi alkate sozialista (Ana Urtxuegia eta Jesus Zaballos, gaur egungo alkatea dena) eta 21 zinegotzik jaso zuten aitortza. 1986tik 2011ra artean (ETAk armak uzten zituela iragarri zuen urtea) aritutakoak omendu dituzte.

Froilan Elesperentzat izan zen eguerdiko aipamen bereziena. 2001eko martxoaren 20an hil zuen ETAk. Hainbat urte igaro dira, baina haren oroitzapena oso presente daukate sozialistek oraindik. Elesperen alargun Tomasi Pelazek eta semeetako batek (Andoni Elespek) jaso zuten diploma.

Aipatutako zinegotziaz gain, beste hainbatek jaso zuten aitortza: Jose Luis Lopez (Lopezaren alargun Filok jaso zuen diploma), Ramon Lopez, Antonio Herranz, Angel Barrera, Martin Moreno, Julio Legaz, Jone Altuna, Jose Mari Urdanpilleta, Fernando Cruz, Jacinto Hernandez, Juan Perez, Carlos Garcia (Desire alabak jaso zuen diploma eta Iñaki Mugika. Omenduak izan arren, Angel M^a Vicente, Lourdes Acevedo, Marta Goyaran, Miren Jone Cabezudo, Fernando Escoriaza eta Iñigo Alonsok ezin izan zuten ekitaldira joan.

Diplomak Iñaki Arriolak (PSE-EEren lehendakaria), Idoina

OMENDUTAKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEK EGINDAKO LANA NABARMENDU DU IÑAKI MUGIKAK

Mendiak (PSE-EEren idazkari nagusia), Eneko Anduezak (Gipuzkoako PSE-EEren idazkari nagusia) eta Iñaki Mugikak banatu zituzten, besteak beste. Agustin Valdivia zinegotziak izendatu zituen omenduak, banan banan.

Diplomak banatzen hasi aurretik, Iñaki Mugika kide sozialistak hitz egin zuen. Gabriel Celaya poetaren *Sin comentarios* poema irakurtzeaz gain, omendutako alkate eta zinegotziek egindako lana nabarmendu zuen: "Ez zen lan erraza izan; guztiok dakizue hori. Pleno urteak gogorak izan ziren: herritarrek asko eskatzen zuten, euren inguruan ezer arrarorik pasatzen ari ez balitz bezala, Lasarte-Oriako agintzea eta gainontzeko udalerrietan agintzea gauza bera balitz bezala".

Ekitaldia bukatzerakoan, aipatu jatetxean bazkaldu zuten omenduek eta kide sozialistek, giro ederrean.



TXINTXARRI

Ile-apainketa eta estetika, oholtzan

Ileapainketa eta estetika igo dira Manuel Lekuona kultur etxeko oholtza gainera asteburu honetan. Lepo bete da aretoa, ikusmira handia sortu baitu herritarren artean Aterpearen azken egitasmoak: Ileapainketa eta Estetika jardunaldia. Ana gizonetzkoen ileapaindegia, Christian Estilistak, Marbell ileapaindegia eta Marian Olaizola ileapaindegia komertzioak arduratu dira ileapainketaz. Estetikaz, berriz, Aritza mertzeria, Ormazabal lorendena, Alba y Mabel moda, Imagine jantzi denda eta Ola enmarkazioak. Aterpeko lehendakari Ramon Ormazabalek aurkeztu zuen ekitaldia.



TXINTXARRI

Erretiro-pentsioa, igoera murrizta

Gobernuak aurtan ere %0,25 igo ditu erretiro-pentsioa. Igoera murrizta salatzeke, erretirodun jendea kalera ateratzen ari da. Lasarte-Oriako erretirodunak ere astelehenean bildu ziren, Okendo plazan. Batzuk *Erretirodunak gara, ez ergelak* kartela zuten eskuetan. Hori ez da ekimen bakarra izango, astelehenero 12:00etan hitzordua jarri dute eta.

PPk salatu du Kotxeras eremua "linboan" dagoela

Alejandro Saenz Lasarte-Oriako PPko zinegotziak alkateari leporatu dio Kotxeraseko eremuari buruz agindutakoa eta egindako proiektu guztiak airean daudela.

PPko zinegotziaren arabera, Zaballos alkateak "beste behin egin du porrot". "Aurrera pausoak eman eta irtenbideak bilatu beharrean, Kotxeras eremua eta inguruak

Lasarte-Oriako puntu beltza bilakatzen ari dira".

PPko zinegotziaren ustez, eremu degradatu horrek Lasarte-Oriako erdigunetik bereizten du Oriako auzoa. "Auzotarrek zenbait orduetan eremu horretatik igarotzeko beldurra dute, eta ez da ibilbide atsegingarria".

Horregatik, PPk eskaera bat egin dio alkateari: eremuko segurtasuna berreskuratu eta Lasarte-Oriako herritarrek Kotxeras eta bere inguruaz gozatu ahal izateko arazoa konpontzea.

Dispertsioa salatu dute Balerdiren omenaldian

Hilaren 28an hamabost urte bete ziren Juankar Balerdi orduko presoaren senideek istripua izan, eta Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi hil zirela. Bi herritarrak omendu dituzte, eta dispertsioaren biktimak errekonozitzeko eskatu diete erakunde publikoei

Adrian Garcia

Hamabost urte bete dira Juankar Balerdiren senideek ezbeharrak izan zutela. Baina urte horietan guztietan ezer gutxi aldatu da. Lasarte-Oriako EH Bilduk deituta, Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi omendu dituzte Askatasunaren Parkeko eskulturaren. Senidea bisitatzeraz zihozela istripua izan zuten, Almeria bidean. Juankar Balerdi orduko presoaren ama eta anaia hil egin ziren. 73 eta 43 urte zituzten. Joxe Balerdi aita larri zauritu zen.

Bost minutuko isilunea egin dute parkeko eskulturaren aurrean, Iturralde eta Balerdiren argazkien parean. Pablo Barrio EH Bilduko zinegotziak manifestua irakurri du, eta dispertsioak hildako hamasei herritarrak gogora ekarri ditu. Txalo zaparrada eta lore sorta jaso dute Jone eta Marijo Balerdik ondoren, omenduen senideek.

Memoria eta errekonozimendua eskatzeko baliatu dute Iturralde eta Balerdiren omenaldia. Izan ere, EH Bilduk salatu du dispertsioaren erruz hil diren biktimek ez dutela erakunde publikoen aitortzarik jaso. "Noiz arte egongo da Argi eta Iñakiren memoria ixildua errekonozimendurako inolako eskubiderik izan gabe?", salatu



Jone Balerdi EH Bilduko ordezkariekin, Iturralde eta Balerdiren argazkien ondoan. TXINTXARRI

BOST MINUTUKO ISILUNEAREN ONDOREN LORE SORTA JASO DUTE SENIDEEK

du Barriok. Lasarte-Oriako EH Bilduren ustetan, gertatutakoaren kontaketa "mosaiko handi bat" izan behar du. "Egia guztiak maila berean ikusarazi eta errekonozitu behar dira gizartearen aurrean. Hamabost

urte daramatzagu Argi eta Iñakiren memoria kaletik eta herri ekimenetatik bizirik eusten, iturri ofizialek egiten ez dutelako".

Horrez gain, dispertsioarekin amaitzeko eskatu dute bertaratutakoek. "Giza eskubideak momentu oro urratzeko tresna da, eta euskal gizarteak hamaika aldiz eskatu du baztertzeko", esan du Barriok. Udaleko alderdiei ere zuzendu zaie, preso en urrunketarekin amaitzeko lan egin dezaten.

Udaleku eta kanpaldiak Araban eta Bizkaian barrena

Ttakun Kultur Elkartek 9 eta 16 urte arteko gazteei zuzendutako udako eskaintza aurkeztu du

Txintxarri

Lasarte-Oriako 9 eta 16 urte arteko gaztetxoek udan ederki gozatzeko aukera dute Ttakun Kultur Elkartek antolatzen dituen udalekuei eta kanpaldiei esker.

Mendi irteerak, bibak, ur ekintzak, gaubelak, kirolak... hamaika abentura biziko dituzte gazteek Araba eta Bizkaia aldean.

Udalekuei dagokionez, aurten Donemiliaga (Araba) eta Atxondo (Bizkaia) aukeratu dira.

LH5-LH6 mailako gaztetxoak uztailaren 3tik 14ra izango dira Donemiliagan, eta LH3-LH4 mailako lagunak, aldiz, uztailaren 16tik 23ra Atxondo eta bere inguruak ezagutuko dituzte.

Egunean zehar ekintza dibertigarriak egingo dituzte gaztetxoek; Lekun etxe eta Errotazarra etxeetan eta bainatzeko aukera ere izango dute.

DBHko gazteentzat aldiz, Araba...ingo al deu ba? eta Bizkaian meztijaia! kanpaldi ibiltariak antolatu dira. Goizetan ibilbidea egin eta arratsaldean hainbat ekintza egingo dituzte.

DBH 1-DBH 2 mailako gazteak uztailaren 3tik 14ra Araban barrena ibiliko dira. Zaharrenak, berriz, DBH 3-DBH 4koak, uztailaren 16tik 27ra Bizkaia aldera joango dira.

Prezioak

Donemiliagako udalekura 231 euro ordaindu beharko dituzte Ttakuneko bazkideek; bazkide ez direnek aldiz, 250 euro.

Atxondoko udalekuko prezioa, berriz, 166 eurokoa da Ttakuneko bazkideentzat, eta 180 eurokoa bazkide ez direnentzat.

Kanpaldien kasuan, bai Araba, bai Bizkaia doazan gazteek kopuru berbera ordainduko dute: Ttakuneko bazkide badira, 241 euro; bazkide ez direnek, ordea, 260 euro.

Ordainketa Kutxabanken edo txartelarekin Ttakuneko bulegoan egin daiteke.

Izena ematea

Udaleku eta kanpaldien izen ematea Ttakun Kultur Elkartean egingo da.

Inskripzioa egiteko behar diren agiriak honako hauek dira: parte hartzailearen NAN kopia, izen-emate orria beteta eta ordainagiria.

Izena ematerako orduan, lehenetsuna izango dute, Ttakuneko bazkideek, iaz ibilitako gazteek, Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko gaztetxoek. Horiek martxoaren 19tik martxoaren 26ra eman ahalko dute izena. Gainerako gazteek apirilaren 2tik maiatzaren 4 arte egin dezakete.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, plazak mugatuak dira. Horregatik, izena emateko ordena errespetatuko da, eta ordainketa egiterakoan ziurtatuko da plaza.

Diru sarreraren kasuan, ordainketa agirian haurraren izen-abizenak agertu beharko dira, eta bertan agertzen den data inskripzio data izango da.

Zorionak Aitzol!



Aitzol Iriondo Iartza
Centre Pénitentiaire
MOULINS-YZEURE
Les Godets
B.P. 24
03 401 Yzeure Cédex
FRANCE



Amaia Amiano (Mugimendu Feminista) eta Maialen Aranburu (Mugimendu Feminista eta ELA sindikatua). TXINTXARRI

"Prozesu baten mugarrria izango da martxoaren 8ko deialdia"

AMAIA AMIANO ETA MAIALEN ARANBURU MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEAK

Astebete eskas geratzen da Emakume Langileen Nazioarteko Egunerako, eta gizartean pairatzen dituzten baldintza prekarioak salatzeke, bi lanuzte egiteko deialdia egin dute

Maddi Noriega

Emakumea mendean hartzen duen sistema kapitalista eta heteropatriarkala salatzeke, lanuzte eguna deitu dute datorren Martxoaren 8a. Mundu mailan, 70 herrialde baino gehiagotan emakumeen grebarako deialdia zabaldu zen iragan urtean, eta deialdi hori bide hartuta, datorren ostegunean, emakumeei

planto egitera deitu die Mugimendu Feministak.

Islandiako greba ekarri dute gogora Maialen Aranburu (Lasarte-Oria, 1985) eta Amaia Amiano (Lasarte-Oria, 1992) Mugimendu Feministako kideek. 1975. urtean emakumeen greba "oso garrantzitsua" egin zutela azaldu du Aranburuk. Emakumeen %90ak egin zuten

greba, eta egun batez, ekonomia gelditu zuten. Egoeraren aurrean, gizonaek gogoratzen zituzten zailtasunen ondorioz, merkataritza guneetako saltxitxa guztiak bezala ezagutzen da orduko greba hura.

Euskal Herrian, gehiengo sindikalaren babesa jaso du

deialdiak. "Prozesu baten lehen pausua" izango dela uste du Aranburu ELA sindikatuko kideak. Prozesu horretan, "aliantza berriak" ehunduko dituztela azaldu du: "Helburua da emakumeen borroka berriro pentsatuz eta erresistentzia berriak eraikiz, alternatiba feminista bat sortzea".

Lau zutabe

Soldatapeko lanaz harago doa osteguneko lanuztea, lau zutabe nagusiri helduko dio mobilizazioak. "Itzalpean geratzen diren lan guztiak (etxeke lanak, zaintza lanak...) argitara ateratzeko balioko duela nabarmendu du Amianok. Aranburuk gehitu du, lanaren kontzeptua orain arte ulertu den modua iraultzeko ere balioko duela: "Bizitzak ezingo luke aurrera jarraitu, emakumeek egiten ditugun lan guztiak egiteari utziko bagenio". Emakumeek soldatapeko lanean egiten duten lana, egunerokoan egiten dituzten lanetako bat dela azpimarratu du ELAko kideak; "hori da ikustarazi nahi dena". Zaintza lanetan aritzen direnen gehiengoa (%95) emakumezkoa da, eta, horietan, baldintza prekarioetan aritzen direla salatu dute lasarteoriatarrek. Etxeko langileen %87 etorkinak dira, %46 etxe barneko langileak, eta herenak baino gehiagok ez dute lan kontraturik. Ondorioz, "emakumeen burujabetza ekonomikoa oztopatu" egiten dela salatu du Mugimendu Feministak: "Sistemak indarkeria ekonomikoaz jazartzen gaitu".

Horrez gain, emakumeen enpleguak modu berean baloratzen ez direla ere ohartarazi nahi dute: Hego Euskal Herrian, soldata arrakala %24koa da, eta urtean,

bataz beste, gizonen baino 7.500 euro gutxiago kobratzen dituzte emakumeek: "Emakumeon lana ez dago behar adina baloratua, eta orduan eta postuetan gorago egin, orduan eta emakume gutxiago daude". Euskal Autonomia Erkidegoan, zuzendaritza postuetan aritzen diren emakumeak, %26,9 dira.

Hortaz gain, lan baldintza prekarioenak ere emakumezkoek pairatzen dituzte, eta hori ez da kasualitatea Aranbururen ustez: "Lan horietan emakumeak aritzea da prekarioak izatearen arrazoia". Lanaldi partzial gehien ere (%76,3) emakumeei egiten zaizkiela gogorarazi du. Datuak Lasarte-Oriara ekarriaz, langabezia dauden %59,9 emakumezkoak dira.

Hezkuntza heteropatriarkala

Hezkuntzari ere helduko dio deialdiak. Gaur egungo hezkuntza "guztiz heteropatriarkala" dela nabarmendu dute Aranburuk eta Amianok, eta hori ere irauli egin behar da haien ustez. "Historian eta zientzian eredu gisa hartzen eta erakusten direnak gizonenak dira, emakumeen ekarpen historikoak alboratu egiten dira". Hezkuntza sistemak genero rola ez dituela auzitan jartzen azpimarratu dute, eta gogoeta bat ere partekatu dute: "Unibertsitateko katedradun gehienak gizonenak izaten diren bezala, haur eskoletako zaintza lanak egiten dituztenak emakumezkoak dira, gehienetan". Informatikako ikasketetan %14 soilik dira emakumeak.

Kontsumoari planto egitera ere deitzen du grebak. "Hedabideek gure arreta

"ITZALPEAN GERATZEN DIREN LAN GUZTIAK ARGITARA ATERATZEKO BALIOKO DU GREBAK"

"URTEAN 7.500 EURO GUTXIAGO KOB RATZEN DITUZTE EMAKUMEK HEGO EUSKAL HERRIAN"

"ZAIN TZA LANETAN EMAKUMEAK ARITZEA DA HORIEK PREKARIOAK IZATEAREN ARRAZOA"

"HEZKUNTZA SISTEMAK EZ DITU GENERO ROLAK ZALANTZAN JARTZEN"

Emakumeen prekaritatea zenbakitan:

Gizonek baino
% 24
gutxiago kobratzen dute
SOLDATAK

Zuzendaritza postuen
% 26,9
betetzen dute
LANPOSTUAK

Etxeko eta zaintza lanen
% 95,2
emakumeen gain dago
ZAINZA

% 77,5
lanaldi partzialean lan egiten du
LANALDIA

LASARTE-ORIAN,
langabezian dauden
% 59,9
emakumeak dira
LANGABEZIA

Iturria: Lasarte-Oriako Udala

Eragile feministek grebarekin bat egiteko luzatutako proposamenak:



Lantoki eta ikasgeletan lanuzteetara batu

M8

Greba zabaldu eta zure eskualdean antolaketan parte hartu



Merkatuan kontsumitzeari utziz, batez ere langileen esplotazioaren ikur diren enpresa handietan, emakumeak objektutzat hartzen dituztenak



Amantala (edota beste edozein tresna) eskegi zaintza lanak azalertzeko



Zaintzeari utzi, lan hori beste emakumeen esku utzi gabe



Edonon zaudela besoko morea jantzi

Iturria: grebafeminista.wordpress.com

MOBILIZAZIOAK

- 12:00 Bulebarrean deialdia.
- 12:30 Konstituzio plazan *performance*-a.

Lau manifestazioa zutabe

- 19:15 Ikasleen zutabea Antiguatik.
- 19:35 Kontsumoaren zutabea San Martinetik.
- 19:30 Enpleguaren zutabea Egiako Justizia Jauregitik.
- 19:30 Zaintzaren zutabea Groseko anbulategitik.

Lanuzteak

- 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara.

m
Mondragon
Unibertsitatea

ATE IREKIAK UNIBERTSITATE GRADUAK



Suediara bidaiatu nahi dut, sukaldaritza nordikoa ezagutzera.

Adriano Mejra Garcés

Quito, Ecuador.
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak, 3. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO • MARTXOAK 10
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • MARTXOAK 17
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO • MARTXOAK 8
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BIDASOA • MARTXOAK 10
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI • MARTXOAK 17
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

BILBAO • APIRILAK 19
OSTEGUNA, 18:00
Bilbao Berrikuntza Faktoria

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Basque Culinary Center

DONOSTIA • MARTXOAK 17
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARENA
JAKINARAZI!



902 110 436
www.mondragon.edu/prest



Lasarte-Oriako Mugimendu Feministako hainbat kide Martxoak 8rako antolatzen. TXINTXARRI

desbideratu, eta etengabeko kontsumora eta dirua gastatzera bultzatzen gaituzte". Helburuak lortzeko, emakumeen irudiez baliatzen direla argi dute Aranburuk eta Amianok: "Sexu objektu gisara azaltzen gaituzte emakumeak, eta hori ere salatu egin behar dugu".

Kontziente dira hainbat emakumek zailtasunak izango dituztela lanuzteak egiteko. Egoera horren aurrean, grebarekin bat egiten dutenek, eta lanuzteko aukerak

dituztenak kalera atera daitezzen eskatu dute: "Aukera dugun emakume guztiok kalera atera behar dugu, gugatik, baina baita lanuztea egin ezingo dutenengatik ere". Baina gizonzkoek rola ere honi zuzenki lotua ikusten du Aranburuk. "Nazkatuta" daude, martxoaren 8an gizonzkoek jokatu behar duten paperaz hitz egiteaz, baina inguruko emakumeek greba egin ahal izatea ahalbidetu behar dutela defendatu dute.

Greba emakumezkoei soilik deitu izanaren arrazoiak "begibistakoak" dira: "Guk dakigu gure behar eta interesak zeintzuk diren, eta guk defendatu behar ditugu". Borroka horren "lehen planoan" emakumezkoak egon behar direla ez dute zalantzarik.

Horrela, gizonzkoek "bigarren mailan" geratzeko gonbita egiten du Mugimendu Feministak: "Bildu daitezela eta dauzkaten pribilegioez erreflexionatu dezatela".

Oraindik badira, ordea, grebarekin bat egin edo ez zalantzak dituzten emakumeak. Horiei grebarekin bat egiteko mila arrazoi daudela defendatu dute Aranburuk eta Amianok. "Gure momentua da", azaldu du ELAko kideak: "Sistema kapitalistaren, heteropatriarkalaren eta arrazistaren iraultzak emakume guztiok eragiten digu".

Deialdiak izan dezakeen jarraipenaz galdetuta, helburua "mobilizazio erraldoiak" egitea

da, eta hori "lortuko da". Eguna heldu aurretik ere gogoetarako bide ematen ari da greba, eta hori lortzea ere "garrantzitsua" da.

Indarkeria matxistaren salaketa

Indarkeria matxista ere salatuko du Martxoaren 8ko grebak. "Ez dago hilketa, sexu eraso edota jazarpenik gabeko egunik", gogorarazi du ELAko kideak. "Onartezina dela salatu behar dugu, horrekin amaitu behar da".

Martxoaren 8ko mobilizazioak hiriburu nagusietan egingo badira ere, Lasarte-Orian hainbat ekintza egingo dituzte. Larunbatean, informazio postua jarriko dute (12:00), Okendo plazan eta hilaren 6an, berriz, Asanblada, Emakumeen Zentro Zibikoan (19:30).

"LANUZTEA EGITEKO AUKERA DUTEN EMAKUME GUZTIEI DEI EGITEN DIEGU KALERA ATERA DAITEZEN"

"EMAKUMEON INTERESAK ETA BEHARRAK ZEIN DIREN GUK DAKIGU, GUK DEFENDATU BEHAR DITUGU"

Martxoaren 8a, Lasarte-Orian

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, zenbait ekitaldi antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Ostegunean bi orduko lanuztea egingo dute udalean, eta elkarretaratzea, eguerdian. Baina aurretik eta ondoren ere beste zenbait ekintza izango dira. Horiekin, "berdintasunaren alde" lan egin nahi du udalak, eta antolatutako ekintzetan parte hartzea animatzen dituzte lasarteoriatarrak.

Martxoaren 5etik 7ra

- Martxoak 8rako kartel lehiaketaren erakusketa, Emakumeen Zentro Zibikoan.

Martxoak 6

- 19:00 Tamara Claveria hizlariak *Feminismo Romania*

hitzaldia eskainiko du, Manuel Lekuona kultur etxean.

Martxoak 7

- 18:00 Sari banaketa Emakumeen Zentro Zibikoan.

Martxoak 8

- 12:00 Elkarretaratzea egingo da Okendo plazan.

Martxoak 9

- 18:00 12 eta 18 urte bitarteko gazteek, ihes egiteko gelan parte hartzeko aukera izango dute.
- 20:00 *¡Uff qué familia!* antzezlanaren ikusteko aukera izango dute helduek, Manuel Lekuona kultur etxean. Sarrera 3 euro.
- 21:30 Herri afaria, El Jardín jatetxean. Bertara joateko izateko

izena eman behar da, Emakumeen Zentro Zibikoan.

Martxoak 10

- 11:00-13:00 Hirugarren zunba maratona egingo da, Okendo plazan. Euria egingo balu, Villa Mirentxu ondoan dagoen Trinketean egingo dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Martxoak 11

- 19:30 *Tres anuncios en las afueras* filma emango dute Manuel Lekuona kultur etxean. Sarrera 5.50 euro.

Martxoak 13

- 18:00 Bideo foruma egingo dute Biyak Bat elkarteak.



Udal ordezkariak Martxoaren 8ko egitarauaren aurkezpenean. TXINTXARRI


Martxoak 15

- 18:00 Bost urtetik gorako haurrentzako ipuin kontaketa saioa egingo da Manuel Lekuona

kultur etxeko haurren liburutegian. Itziar Saenz de Ojer arituko da ipuin kontalari lanetan.

PLAZAN BAZAN

ZULOa Zein animalia bizi ote da zulo honetan?
Marraz ezazu, eta bere bi kumeak ere bai.



Segundotxo bat...

Bi sekuentzia hauen artean segundo bakar bat besterik ez da pasa, baina gauza mordoak gertatu da. Bila itzazu bi irudien artean dauden aldeak.



Elurretan

Bai dibertigarria elurra, ezta? Zorritzarrez, arriskurik ere badu. Hemen jolasean ari den bat, adibidez, hoztu eta gaixotu egingo da. Zein ote da? Ahoa zabalik du, eta lepoan bufanda. Badu zerbait horia, baina gorririk ez, ezta ubelik ere. Badu zerbait urdina, baina ez dira prakak. Eskuak libre dituen arren, badu elur bola bat menpean.



Lasarte-Oria zuri-zuri esnatu da

Elurte goiz hotza izan zen asteazkenean



Urnietatik Lasarte-Oriarako Plazaolako bidea ere erabat zuritu zuen elurak. TXINTXARRI



Elurteak azoka zapuztu du, saltzaileek ez dute Lasarte-Oriara iristerik izan. TXINTXARRI



Lasarte-Oria eta bere inguruen panoramika ikusgarria. N-1 errepeidea itxita egon da denbora luzez. TXINTXARRI



Okendo plazan jolasean ibili dira herritarrak. Elur-panpinak ere egin dituzte. TXINTXARRI



Ikastolarik ez dute izan eta ederki gozatu dute gazteek aldapan behera. TXINTXARRI



Tren geltokia jendez gainezka egon da goizean. Trenak tarteka ibili dira. TXINTXARRI



Udal langileak errepide eta kaleetan lanean egon dira guztia garbi egoteko. Tajamar biribigunea itxi behar izan dute ordu erdiz. TXINTXARRI



Eskiak ere atera dituzte batzuk herrian edo inguruetan ibiltzeko. TXINTXARRI



Iguarte

SAGARDOTEGIA

- Eguneko menua
- Kaxuelitak
- Sagardotegi menua
- Kuadrilantzako menuak, prezio egokitan

Urte osoan zabalik, zatoz!



Martxoaren 3an, afari-kontzertua:

“New Straits” taldea

22:30etik aurrera!

iguartesagardotegia@gmail.com. Tel.: 658 435 160
Asteasuain poligonoa, Iguarte, 11. USURBIL (Urbil ondoan)



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

Gipuzkoaren etorkizuna
guztion ardura da. Eraiki
dezagun guztion artean.
Aurrea hartzea da
horretarako modu
hoberena.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

Saskibaloiko zazpi taldeek irabazi egin dute

Ez ohiko asteburua izan da Ostadar SKT Saskibaloi atalarentzat, baina guztiz pozgarria; kategoria guztietako taldeek irabazi dute jardunaldi honetan. Bestalde, Saskibaloi Eskolakoek Zarautzeko Zast taldearekin topaketa egin dute asteburuan

Txintxarri

Asteburu berezia izan da Ostadar SKT Saskibaloi atalarentzat. Lasarte-Oriako zazpi taldeek irabazi egin dute asteburuan. "Ez da beti gertatzen den datu bat", esan du Endika Marrahi ataleko arduradunak.

Infantil txikiek ethez kanpo lortu zuten garaipena, Donostiako Antigua Luberriren aurka (27-39). Lehen laurdena izan zuten partidako onena. Hasieratik azeleragailua sakatu, eta 3-16ko partziala lortu zuten.

Bigarreanean konfiantza gehiagorekin atera ziren, eta ez zuten zorte handirik izan saskiratzean. Halere, distantzia apur bat handitzea lortu zuten (9-24).

Denetan txarrena izan zen hirugarren laurdena. Partziala irabazi zuten donostiarrek, baina ez zen nahikoa izan lasarteoriatarrek garaitzeko.

Bestalde, 1. mailako seniorrek La Salle Mundarro menderatu




Saskibaloi Eskolakoak, asteburuko topaketan. OSTADAR SKT SASKIBALOIA

zuten (41-58); Junior Errendimendukoek, berriz, aise irabazi zioten Arri-BKLri (59-29); Junior Partizipaziokoek Oiarso garaitu zuten (21-56); Kadete Errendimenduak Atletico San Sebastiani irabazi zion (45-49); Kadete Partizipaziokoek Bera-

Berari (37-51); baita Infantil Handiek (36-44). Horrez gain, Saski Eskolako taldeak topaketa izan zuen La Salle ikastolan, Zarautzeko Zast taldearen aurka. Bi norgehiagokak galdu zituzten, baina "goiz paregabea" pasa zuten.

28 domina Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketan

Sekulako marka lortu du Buruntzaldea IKTk. Asteburuan Irunen jokatu zuten infantil, junior eta senior mailako Gipuzkoako Neguko txapelketa, eta poltsikoa bete domina itzuli ziren herrira. Urrezko hogeitaz, zilarrezko sei eta brontzezko bi eskuratu zituzten denera. Horrez gainera, taldeko bederatzirekor berri eta 39 marka pertsonal ondu zituzten.



Txapelketaren une bat. BURUNTZALDEA IKT



Bi kadeteak, Burgoseko kopan. ARISTEGI

Burgoseko kopan lehiatu dira kadeteak

Martin Sebastian eta Lucas Morales Espainiako Judoko Kopan lehiatu dira, Burgosen. Bestalde, Josu Olmos, Asier Sagasti eta Fermin Balda Bartzelonako kopan izan dira.

Hutsegiteak garesti ordaintzen dira

Babyauto Zarautz errugbi taldeak ilusio handiarekin egin zuen Santanderrerako bidaia, kanporaketetarako sarbidea emango liokeen bigarren postua baitzeukan jokoan. Halere, ezin izan zuten Bathco Rugby Club garaitu (54-10). Kantabriarrek ongi jokatu zuten, eta garesti ordaindu zituen Babyauto Zarautzek egindako hutsegiteak.

Asteburu honetan beste bidaia garrantzitsu bat dute errugbilariek. Galiziara joango dira, Ourenseren aurka jokatzera. B taldeak, ordea, Elorrion jokatzeko du, eta jokalariek antolatutako beharko dira bi partidei aurre egiteko.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

| |
|--|
| FUTBOLA |
| ERREGIONALEN IGOERA FASEA |
| Touring KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Errenterian. |
| ERREGIONAL PREFERENTE A |
| Ostadar SKT - Deusto Donostia Larunbata. 17:15. Michelinen. |
| JUBENILEN OHOREZKO MAILA |
| Ostadar SKT - Tolosa Igandea. 11:30. Michelinen. |
| JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA |
| Ostadar SKT - Lagun Onak CD Larunbata. 15:30. Michelinen. |
| KADETEEN OHOREZKO MAILA |
| Billabona KE - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Billabonan. |
| KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA |
| Ostadar SKT A - Orioko FT A Igandea. 12:00. Michelinen. |
| KADETE 1. MAILA, KOPA |
| Ostadar SKT B - Santo Tomas Lizeoa Larunbata. 13:00. Michelinen. |

| |
|---|
| ARETO-FUTBOLA |
| HERRIKO TXAPELKETA |
| Insausti Kattagorri - Avenida Taberna Larunbata. 09:30. Kirolgunean. |
| Izen Gabe - Bar Buenetxea Larunbata. 10:30. Kirolgunean. |
| Patricio Bar - Irigoien Larunbata. 11:30. Kirolgunean. |
| Viña del Mar - Txoko Taberna Autocares Luisar Larunbata. 12:30. Kirolgunean. |
| 3. NAZIONAL MAILA |
| Sasikoa Durango - Eguzki Antonio Aroztegia Igandea. 10:30. Durangon. |
| GIPUZKOAKO 1GO MAILA |
| Lauburu Aldatz Klinika - ISU Leihoak Ostirala. 20:30. Ibarren. |
| GIPUZKOAKO 2. MAILA |
| Cecilia Frutadenda Eguzki - Inter Eder Kafetegia Igandea. 09:30. Kiroldegian. |
| SENIORRAK |
| Trumoi Taberna Eguzki - Teep Samaniego Orixe Tolosaldea Ostirala. 20:30. Kiroldegian. |

| |
|---|
| JUBENILAK |
| Plazaola Argazkia Aloña - Bar Lasarte Eguzki Larunbata. 09:30. Oñatin |
| KADETEAK |
| Balerdi Eguzki - Gael elkarte Igandea. 11:15. Kiroldegian. |
| SASKIBALOIA |
| SENIORRA |
| Ostadar SKT - Grupo Eme Oiarso Larunbata. 18:00. Kiroldegian. |
| SENIORRA 3. MAILA |
| Ostadar SKT - Grupo Eme Oiarso Ostirala. 20:30. Kiroldegian. |
| JUNIOR ERRENDIMENDUA |
| Bera Bera - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Donostian. |
| JUNIOR PARTIZIPAZIOA |
| Ostadar SKT - Erroibide Bidasoa Erroibide Optika Larunbata. 16:00. Kiroldegian. |
| KADETE ERRENDIMENDUA |
| Ostadar SKT - Arri BKL Aseplan Pavitecnic Larunbata. 11:00. Kiroldegian. |

| |
|--|
| KADETE PARTIZIPAZIOA |
| Ostadar SKT - CD Internacional Mons Larunbata. 09:30. Kiroldegian. |
| ERRUGBIA |
| OHOREZKO B MAILA |
| Campus Ourense - Babyauto Zarautz Igandea. 12:00. Ourensean. |
| EUSKAL LIGA |
| Elorrio RT - Babyauto Zarautz Larunbata. 16:30. Elorrion. |
| 18 URTEZ AZPIKOAK |
| Babyauto Zarautz Beltzak - Durango Elorrio RT Larunbata. 11:00. Astin. |
| IGERIKETA |
| EUSKAL HERRIKO INFANTILEN TXAPELKETA |
| Buruntzaldea IKTko infantil kategoriako igerilariak asteburuan jokatu dute Euskal Herriko txapelketa. Larunbata eta igandea. 10:30 eta 16:30. Tolosako Usabal kiroldegian. |

| |
|---|
| PILOTA |
| UDABERRI, BINAKA 1. MAILA |
| Intza 2 - Azkoitia 3 Ostirala. 16:00. Michelingo frontoian. |
| Intza 1 - Gure Txeru Ostirala. 16:00. Ametsa trinketa, Iruran. |
| TRIATLOIA |
| EIBARKO DUATLOIA |
| Trinko taldeko lau kidek debuta egingo dute. 5 km korrika, 18 bizikletan eta 2.5 korrika. Larunbata. 16:45. Eibarren. |
| MENDI LASTERKETAK |
| ORIOKO MENDI LASTERKETA |
| Lasarte-Oriako hainbat korrikalari arituko dira. Igandea. 09:30. Orion. |
| LASTERKETA |
| LILATOIA |
| Lasarte-Oriatik 114 korrikalarik eman dute izena Donostiako lasterketan parte hartzeko. Igandea. 10:30. Donostian. |

ZORION AGURRAK

**Noa eta Adrian**

Zorionak Noa eta Adrian zuen lehenengo urtebetetzean, Tomas eta Carmina aitona-amonon partetik.

**Jairo**

Zorionak ama eta famili osoaren partez. Ondo pasa zure egunean!

**Juan Luis eta Jone**

Zorionak pareja de bi! Zuekin ospatu nahi dugu zure urtebetetzea, beraz, afaria zuen kontu! Muxu bat familia osoaren partez.

**Urko**

Zorionak prexioxo!!! 2 urte bete dituzu jada. Nola pasatzen den denbora! Eta gero eta gehiago maite zaitugu... Muxu asko, bihotzez, etxekoan partetik!!!

**Iker eta Jose Antonio**

Zorionak nire bizitzako bi gizonel. Poz handiz jarraituko dugu ospatzen. Askok maite zaituztegu.

**Iune**

Zorionak guapisima!!! Super ondo pasa zure egunean. Bost muxu potolo familiararen partetik!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa**Mezua bidali**

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA**ERRENTAN EMAN**

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan. 659 021 945.

LANA**ESKAERA**

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen esperientzia duen emakume bat naiz interna gisa lan egiteko prest. Gomendio onak badituz,

Lasarten bertan lan egiteagatik. 631 201 882.

Umeak zaindu edota klase partikularrak emateko prest. Magisteritza ikasia, esperientzia umeekin eta euskalduna. 658 727 669.

Interno gisa lan edo orduka egingo nuke lan. 617 853 042.

JAIOTAKOAK

Patrik Illunbe Olano. Otsailaren 23an.

HILDAKOAK

Joxe Arruti Lertxundi. Otsailaren 26an.

M^a Libertad Cerezo Garcia. Otsailaren 26an.

Domingo Mecerreyes Terrado. Otsailaren 25an.

Imanol Jimenez Grandes. Otsailaren 22an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 02 ACHA-ORBEA

Larunbata, 03 URBISTONDO

Igandea, 04 URBISTONDO

Astelehena, 05 GANDARIAS-URIBE

Astearte, 06 ORUE

Asteazkena, 07 DE MIGUEL

Osteguna, 08 LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

OHARRAK

Barrikotea Udaberri elkarteak

Udaberri elkarteak barrikotea antolatu du martxoaren 9n, 21:00etatik aurrera. Bere bazkide eta hauen lagunak menu goxoa dastatu ahalko dute sagardoaz lagunduta. Prezioa 20 euro da.

Izena ematea bi moduetara egin daiteke: elkartearen asteartean 19:00etatik 20:30era edo sociedadudaberri@outlook.es helbide elektronikora mezua bidaliz. Horretan mahaikide kopurua zehaztu behar da. Ostean, diru sarrera honako kontuetan egin behar da: Rural Kutxan 3008 0148 6011 2128 6627

edo Kutxabank 2095 5048 13 1062637862.

Inskripzioa egiteko azken eguna martxoaren 5a da.

Zesta punta hastapenak

Lasarte-Oriako Udala Kirol Zerbitzuak zesta puntan hasteko saio berezia antolatu du martxoaren 17an, arratsaldeko 16:00etan, Michelin kirol guneko pilotalekuan.

2006 urtetik 2009 urtera jaiotako neska-mutilei zuzendutako saioa izango da.

Interesa duten pertsonak, martxoak 5a astelehenetik aurrera, Maialen Chourraut

kiroldegian eman behar dute izena. Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, plaza kopurua mugatua da eta izen-emate zerrenda errespetatuko da.

Jarduera doan izango da udal kirol instalazioen bazkideentzat.

Faltzes eta Milagrora txangoa

Biyak Bat elkarteak Faltzes eta Milagroko El Montecillo lursailera irteera antolatu dute martxoaren 22an.

Goizeko 8:00etan aterako dira Lasarte-Oriatik eta Flatzeseko Zahori hipika ezagutuko dute. Milagroko El Montecillo

lursailen bazkaldu eta ostean, dantzaldia eta bingoa izango dute.

Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek berriz, 45 euro.

Izena ematea martxoaren 7an irekiko da. Inskripzioa elkartearen bulegoan egin behar da astelehenetik ostiralera, 10:30etik 12:30era.

Azoka solidarioa

Donostiako Santa Teresa Ikastetxea Azoka Solidarioa antolatzen ari da hiru proiektu aurrera ateratzeko. Azoka martxoaren 8 eta 9an izango da,

9:30etik 13:15era eta 15:30etik 18:00etara ikastetxean.

Ikastetxeak gonbidapena luzatzen die Lasarte-Oriako ikasle, guraso eta herritarrei gerturatzeko.

GUTUNAK

Eskerrik asko zuri eta eskerrik asko denei**OIHANA BELTRAN TELLERIA**

Ez nuen asmatuko sekula ostegun goizeko “dei galdu” horrek izango zuen ondorena, ez eta horren ondorioz gaur hitz hauek idazten arituko nintzena. Irakurtzen ez diren kontratueto hizki txiki horiekin pasatzen den bezala, batekin ezkondu baina berekin lotu zinela uste gabeen esaten zenuen maiz, eta bi haur izanda ere “hirugarrenak” ematen zizkizula buruhauste eta lan handienak. Eta begira orain.

Denbora gutxi pasa den arren emozio eta egoera aldrebes ugari bizi izan ditut azken egunotan, saiatu naiz zurekin haserretzen, baina ezinezkoa zait. Amorrua eta tristura, indar eta kemen bilakatu zaizkit momentu batez eta zin egin dizut malako potoloenak masailetik behera

ditudala (pelikuletan eman izan ohi den modura) zure hutsunea betetzen saiatuko naizela, eta hasi naiz egindakoak errenkan izendatzen: Zabaleta auzo elkarteko lehendakari eta festetako artilero, txarangako botilero abesti eta abesti artean ez dadila inor egarri geratu behintzat, euskararen maratoiko armairuaren egile, sorgin dantzako traktore gidari, GEDEKO errotondatako kartelen artifizere, Landaberriko jaialdi eta kros-eko laguntzaile fin, festa eta lagun arteko saltsero... eta batez ere gurasoen euskarri, iloben babes eta ahizparen zoriontasunaren erantzule. Gaztea bai, baina lanak ondo baino hobeto egindakoa izan ere! Lehendik hainbeste bete gaituzulako izango da gaur horrenbestekoa sentitzen dugun hutsunea. Sansebastianetako katilua jartzeko apala eta

“Beltzak” saskiko telebista jarri gabe geratu zaizkizu nire etxean... “Oaintxe in deu earra kuñau”, zu gabe bizitzen ikasi behar dugu berriz, kosta behar zait ederki... irudikatu nezaken konplize onena izan zara niretzat zalantzarik gabe!

“Kapitala izan zen” herritik, “meloneroen” herrira etorri zinen ezinbestean erdi purrustaka, eta gaur herritarren malko, besarkada eta muxuetan sentitzen zaitugu etxekoek. Zein ederra herri baten maitasun eta babesaren min latz hau. Eman didazun azken lekzioa hau, herrigintzatik sortutako maitasunaren handitasuna. Eztakit jasotzen ari garen babes eta maitasuna Lasarte-Oriako herriari eskertzeko gai izango garen inoiz, benetan eskerturik gaude etxeko guztiak eta ezinbestekoa izaten ari da sentitzen dugun minari aurre

egiteko. Eskerrik asko beraz zuri eta eskerrik asko herritarrei.

Hitz hauek bukatu behar ditut orain, zugarako bizi berria hasteko; ez zaigu erraza izango berriro hasieratik gure etxea ber-erakitzea baina zure arrastoak gure bihotzetan utzitako maitasunak lagunduko digu ziur. Saiatuko gara herrigintzatik, “irrigintza eta lagungintza” alaitasunez eta maitasunez lantzen zuten erakutsitako moduan, mundu ero honetan denak biraka jarrai dezagun aurrerantzean ere elkarrekin. Eskerrik asko zuri eta eskerrik asko denei.

ESKELAK

OROIGARRIA



Imanol Jimenez Grandes



2018ko otsailaren 22an hil zen, 40 urte zituela.

EZ ZAITU OSORIK ERAMAN HERIOK



Zabaleta Auzolan

Hainbat taldek omenaldi txikia egingo diote ostiralean, 19:00etan, Okendo plazan. Eguraldi txarrarekin, Loidi Barren frontoian.

Imanol Jimenez Grandes



Txori kantazale ederra nun ote haiz kantatzen harrien negarra haizeak darama Tolosatik Lasartera barna

OAINTE IN DEU! Txaranga

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artetxe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Amets Agirre, Ander
Huegun, Maialen Goikoetxea.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Legre Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LARUNBATA 3

LASARTE-ORIA Haur antzerkia
GluGlu produkzioak *Alizia lurralde miresgarrian* haur antzerkia eskainiko du. Hiru eta bederatzi urte arteko haurrei zuzendua. Sarrera, 3,80 euro. Manuel Lekuona, 17:00etan

ASTIGARRAGA Azoka

Energia garbien eta eraginkorren azoka antolatu dute. Energia fotoboltaikoa, eolikoa, termikoa, ibilgailu elektrikoa, led argia, biomasa, pelet galdarak... hainbat instalakuntza ikusi ahalko dira. Joseba Barandiaran plaza, 10:00etatik 14:00etara.

ANDOAIN Kaleko ekintza

Martxoaren 8a dela eta, *Algodonerako emakumeak*. *Kaleko ekintza fotografikoa* Sylvia Ayerra artistaren eskutik. Urigain etxea, 11:00etatik aurrera

HERNANI Haur antzerkia

Imaginat taldeak *Sensacional* haur antzerkia eskainiko du. 18 hilabete eta hiru urtera arteko haurrei zuzendutako antzerkia da. Lau saio dira eta bakoitzean 25 haur sartuko dira. Biteri kultur etxea, 11:00etan, 11:30ean, 12:00etan eta 12:30ean

HERNANI Kontzertua

Ereñotzu-Hernaniko Ozenki Goraki, Lasarte-Oriako Xumela eta Zarauzko Montexio abesbatzek kontzertua eskainiko dute. Ereñotzuko eliza, 19:00etan

IGANDEA 4

ASTIGARRAGA Plaza dantza

Haur, heldu zein gazteei zuzendutako plaza dantza saioa. Muxikoak, biribilketa, fandangoa, arin-arina... dantza tradizionalak izango dira. Astigar dantza-taldeak antolatua. Joseba Barandiaran plaza, 12:30ean.

USURBIL Laburbira

Laburbira ekimenean honako film laburrak ikusiko dituzte: *Ilunpetan* (Koldo Carranza), *Night Shift* (Izakun Arandia), *Higadurak* (Oihane Zunzunegi eta Amaia Otaola), *Ejecutor* (Javi Arriaga), *Tazan* (UDA films), *Areka* (Atxur animazio taldea), *Kreba* (Oier



LASARTE-ORIA Haur antzerkia. Lewis Carrollen *Alizia lurralde miresgarrian* ipuinaren haur antzerkirako moldaketa da. Gaur egungo haurrei zuzenduta dago eta ikastearen edertasuna eta beharra sustatzen ditu. Kantu eta dantza artean, Alizaki hainbat pertsonaia xeble eta dibertigarri ezagutuko ditu. Haiei esker onartuko du, matematika edo ingurugiro ikasteak sekulako onurak ematen dizkigula. Eta dibertigarria ere badela. Larunbata, Manuel Lekuona kultur etxean, 17:00etan

Fuentes) eta *Zulo* (Erika Olaizola eta Amancay Gaztañaga). NOAUA! kultur elkarteak antolatua.

Sutegi aretoa, 19:30ean

ASTELEHENA 5

LASARTE-ORIA Erakusketa

Martxoaren 8ko, Emakumeen Nazioarteko eguneko kartel lehiaketako proposamenen erakusketa ikusgai izango da martxoaren 7a, asteazkenera arte. Kartelak bozkatu ahalko dira.

Emakumeen Zentro Zibikoa

ASTEARTEA 6

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Martxoaren 8a dela eta, Tamara Claveriak *Feminismo erromaniarra* hitzaldia eskainiko du.

Manuel Lekuona, 19:00etan

ANDOAIN Mahai ingurua

Martxoaren 8a dela eta, *Andoingo emakumeen aztarnak*. *Gure ekarpena herriko historiari proiektzioa* eta mahaingurua egingo da. Andoingo hiru emakumek beraien bizi esperientziak kontatuko dituzte. Moderatzaile lanetan, Jone Larrañaga egongo da.

Bastero Kulturgunea, 18:00etan

HERNANI Hitzaldia

Beñi Agirrek *Gipuzkoako historia*

nafarra liburuari buruz hitz egingo du. Hernani errotzen taldeak antolatua.

Biteri kultur etxea, 19:30ean

ASTEAZKENA 7

USURBIL Hitzaldia

Angula ustelak elkartasun birako hitzaldia. Ainhoa Intxaurrendietaren (GHKko lehendakari ohia) eta Iñaki Errazkinen (Gipuzkoako Ingurumen diputatu ohia) epaiketaren berri emango dute. Ainhoa Intxaurrendietaren eta Igor Melchor izango dira hizlariak. Gipuzkoa Zutik antolatua.

Sutegi aretoa, 19:00etan

OSTEGUNA 8

LASARTE-ORIA Erakusketa

Martxoaren 8a dela eta, *Herria herri bilakatu zuten Andoingo emakumeak* erakusketa ikusgai izango da martxoaren 14a arte.

Bastero Kulturgunea, astean zehar 18:00etatik 20:00etara; larunbatean, 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

USURBIL Solasaldia

Martxoaren 8a dela eta, emakume ekintzaileekin solasaldia egingo dute. Kabiene elkarian gunea, 18:00etan

ANDOAIN Bideo-foruma

Martxoaren 8a dela eta, *Aurreiritziak desegiten* bideo-foruma egingo dute. Gaztelokala, 18:00etan

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Tres anuncios en las afueras (JBGA)
Ostirala: 22:00.

Oihaneko kuadrilla
Ostirala: 17:00.

Thi Mai: Rumbo a Vietnam
Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Gorrion Rojo

Ostirala: 16:05, 19:00, 20:00, 22:00, 00:15.

Larunbata: 16:05, 19:00, 20:00, 22:00, 00:15.
Igandea: 16:05, 19:00, 20:00, 22:00.

Sin Rodeos
Ostirala: 16:10, 18:30, 20:25, 22:20, 00:50.

Larunbata: 16:10, 18:30, 20:25, 22:20, 00:50.
Igandea: 16:10, 18:30, 20:25, 22:20.

Yo, Tonya
Ostirala: 16:00, 00:55.
Larunbata: 16:00, 00:55.
Igandea: 15:50, 20:15, 22:30.

Lady Bird
Ostirala: 18:15, 22:50.
Larunbata: 18:15, 22:50.
Igandea: 18:15, 22:50.

Todo el dinero del mundo
Ostirala: 21:00, 23:40.
Larunbata: 21:00, 23:40.
Igandea: 21:00.

Black Panther
Ostirala: 15:50, 18:40,

21:30, 00:20.
Larunbata: 15:50, 18:40, 21:30, 00:20.
Igandea: 15:50, 18:40, 21:30.

El hijo de Bigfoot
Ostirala: 16:00, 18:00.
Larunbata: 16:00, 18:00.
Igandea: 16:00, 18:00.

Cincuenta sombras liberadas
Ostirala: 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Larunbata: 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.
Igandea: 18:20, 20:30, 22:40.

Errementari
Ostirala: 20:15 (eusk), 22:15.
Larunbata: 20:15 (eusk), 22:15.
Igandea: 20:15 (eusk), 22:15.

El corredor del laberinto: La cura mortal
Ostirala: 00:15.
Larunbata: 00:15.

El cuaderno de Sara
Ostirala: 15:50, 18:00.
Larunbata: 15:50.
Igandea: 15:50.

La forma del agua
Ostirala: 16:15, 18:50, 21:25, 00:00.
Larunbata: 16:15, 18:50, 21:25, 00:00.
Igandea: 16:15, 18:50, 21:25.

Perfectos desconocidos
Ostirala: 15:55.

Ferdinand
Larunbata: 15:45.
Igandea: 15:45.

Cavernicola
Larunbata: 18:00.
Igandea: 18:00.



LABURPENA

Tres anuncios en las afueras (JBGA)

Zuzendaria eta gidoilaria: Martin McDonagh. **Herr.:** Erresuma Batua (2017). **Argazkia:** Ben Davis. **Muntaketa:** Jon Gregory.

Aktoreak: Frances McDormand, Woody Harrelson, Sam Rockwell, Peter Dinklage, Abbie Cornish, Lucas Hedges, Caleb Landry Jones. **Iraupena:** 115 minutu.

Ama baten borroka

Tres anuncios en las afueras komedia beltza film arrakastatsua dugu ikusgai aste honetan Okendo zinema taldearen eskutik.

Bost hilabete dira Mildred Hayesen alabaren hilketatik eta ez dute errudunik harrapatu. Hori dela eta Mildred uurrats ausarta egingo du: bere herrira daramaten hiru seinale pintatuko ditu.

Seinaleetan William Willoughby herriko poliziaburuaren errespetatuarentzako mezu polemikoak idatzi ditu.

Poliziaburuaren bigarrenengoak, Dixon amazulo heldugabe eta indarzaleak, eskua tartean sartzen duenean, okerrera egingo du

Mildred eta Ebbingeko polizia-indarren arteko gerrak.

Tres anuncios en las afueras filmak nazioarteko zinema jaialdietan eskuratu ditu sariak. Besteak beste, Urrezko Globoetan garaile izan zen lau sarirekin. Horien artean, film dramatiko onena, gidoi onena eta emakumezko aktore onena. Veneziaiko Zienma Jaialdian gidoi onenaren saria eta Donostiako Zinemaldian ere ikusleen saria irabazi zuen.

Oscar sarietarako zazpi hautagaitza ditu.

Jatorrizko bertsioan eskainiko da, gaztelaniazko azpitituluekin.

BITXIKERIAK



Semblante Rociero kantuan, igandeko mezan. TXINTXARRI

Mende laurdena etxeko ohiturei eusten

Andaluzia Eguna ospatu dute 25. aldiz Semblante Andaluzeko kideek. Lasarte-Orian errotutako jaialdia da dagoeneko. TXINTXARRI-ren hastapenean ere present egon da andaluziarren festa. Mende laurdenean musikak eta giro onak ez du hutsik egin

Txintxarri

Urteroko festa bilakatu da Andaluzia Eguna Lasarte-Orian. Andaluziatik herrira etorrikoek euren usadioei eutsi baitiete harro, eta urtero-urtero haien lurretako zapoak eta musika konpartitzen dute Semblante Andaluzen lokalean. Errotutako festa da. Ez alferrik, aurten 25.

urtez ospatu dute. Gauzak asko aldatu dira mende laurdenean, baina festaren kutsua bere horretan mantendu da urte horietan guztietan. TXINTXARRI-ren hastapenetan ere present egon da andaluziarren festa. Izan ere, herri aldizkaria sortu zen urtean ospatu zuten lehen Andaluzia eguna.

Zuri-beltzeko argazkietatik kolorekoetara pasa dira, baina Andaluziako doinuek berdin-berdin astindu dute airea. Sustraiak ahaztu gabe, ondo jakin dute herrira egokitzen. Horren erakusgarri da euskarari egin dioten tokia. TXINTXARRI-ren 12. zenbakian irakurritz gero jabetu daiteke horretaz; lehen

✓ Labur-Labur



SEMBLANTE ANDALUZ Kultur zentroak Andaluziaren eguna ospatzeko zenbait ekitaldi burutu zituen otsailaren 26an eta 27an. Lasarte-Oriako " Semblante Andaluz" eta Arrasateko " Al Andalus" taldeek ikuskizun bikaina eskaini zuten. Aipagarria da ekitaldien aurkezpena euskaraz eta gaztelaniaz egin izana. " Semblante Andaluz" taldeak, M^a Carmen Vegas, Olga Bermúdez eta Ramón Acostaren zuzendaritzazanean 1994. urteko zenbakian Andaluziako Egunari buruzko informazioa. TXINTXARRI

Andaluzia Egunean aurkezpena euskaraz ere egin zuten.

Udal ordezkariak

Aldatu ez diren beste gauza asko daude. Herriko ordezkariak zabala gonbidatzen dute festara. Esaterako, udal ordezkariak duten alderdi guztiak present egon ohi dira. Jesus Zaballos alkatea eta Maite Iglesias (PSE-EE); Pablo Barrio (EH Bildu), Arkaitz Naya (LOAD), Jon Antxordoki (EAJ) eta Alejandro Saenz (PP) izan ziren igandean Semblante Andaluzen bazkarian. Andaluzia eguneko ohorezko topan ere ez dute hutsik egin.

Asteazkenean, aipatutakoez gain, Txus Alonso, Agustin Valdivia, eta Nuria Fernandez (PSE-EE) eta David Ares (ADLOP) zinegotziak izan ziren. PPko Borja Semper ere izan zen.

Meza rozieroa da festako beste ezaugarri nabarmena. Kantua dantza eta giro ona ez baita inoiz falta izaten Semblante Andaluzekoen ondoan.

Halere, aurten bada aldaketa bat. Elkarteak jaio zenetik (duela ia 26 urte), Semblante hainbat bazkide aritu izan dira sukaldian. Aldatu egin dute hori aurten. Jose Perez lehendakariak azaldu du zergatia: "Urteotan guztietan sukaldian lanean aritu diren bazkideak ere mahaian esertzea nahi dugu, bazkariaz goza dezaten, gainontzekoekin batera". Hori dela eta, *catering* enpresa bat kontratatu dute.

Bada beste aldaketa esanguratsu bat ere: Semblante Andaluzeko presidente berria izendatu dute. Modu horretan, Jose Perezek Jose Mari Melladori eman dio lekukoa.



ASTE SANTUAN...
 LASTURRERA GOAZI!

Noiz: Martxoaren 26tik 28ra Norentzat: 9-12 urteko haurrak
 Prezioa: Ttakuneko bazkideak 48€ | Bazkide ez direnak: 51€
 Izen-ematea: Martxoaren 21era arte (hau barne),
 Ttakun Kultur Elkarteak. PLAZA MUGATUAK